



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

| | |
|--|--------------------------|
|  EUSKO LEGEBILTZARRA PARLAMENTO VASCO ERREGISTRO OROKORRA REGISTRO GENERAL | |
| 2020 ABE. 10 DIC. 10 | |
| SARRERA/ ENTRADA | IRTEERA/ SALIDA |

Dokumentu mota / Tipo de documento: OSOKO ZUZENKETA

Nori zuzendua / Dirigido a: LEGEBILTZARREKO MAHAIA

Proposatzailea / Proponente: PEREZ, LAURA (EA-NV)
ANDUEZA, ENEKO (ES-SV)

Data / Fecha: 2020.12.10

Espediente zenbakia / Número de expediente: 12/11/02/01/00081

Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa: EAEn preso dauden pertsonen osasunerako eskubidearen bermeari buruz / En relación con la garantía del derecho a la salud de las personas presas en la CAV

1-Eusko Legebiltzarrak adierazi du kezkatuta dagoela EAEko espetxeetan arrazoi ez-naturalengatik izandako edozein heriotzagatik, besteak beste, gaindosiagatik gertatutakoengatik.


2.- Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio %100ean osa dezala "zuzenean behatutako tratamenduaren" ezarpena, Espetxeratuen Zaintzako Epaitegira igorritako jakinarazpenean - Erantzunean - Jasotako modu eta epeetan, presoek farmako psikotropikoak benetan ematen zaizkiela bermatzeko modu gisa, eta, horrela, saihestuz sendagai horiek agindutako helburua ez den beste bat izatea.

3.- Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala EAEko espetxeetan Adikzioen eta substantzien kontsumoen prebentzioaren eta tratamenduaren arloan ezarritako laguntza-programekin, bai eta presoek osasun mentalaren arretarekin ere,

1-El Parlamento Vasco expresa su preocupación por cualquier fallecimiento, por causas no naturales, ocurrido en centros penitenciarios de la CAV, entre ellas aquellas acaecidas por sobredosis.

2-El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a completar al 100% la implantación del "Tratamiento Directamente Observado" en la forma y plazos contemplados en la comunicación - respuesta - remitida al Juzgado de Vigilancia Penitenciaria, como forma de asegurar la dispensación efectiva de los fármacos psicotrópicos a personas presas, evitando con ello que dichos medicamentos puedan tener un destino distinto a aquel para el que hayan sido pautados.

3.-El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a continuar con los programas asistenciales ya implantados en los centros penitenciarios de la CAV en el ámbito de la prevención y el tratamiento de adicciones y consumos de sustancias, así como en la atención de la salud mental de los internos,



kalitatezko laguntza eta arreta bermatuz, EAEko gainerako herritarrei bezala.

4.- Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio urteko memoria bat egin dezala, emandako asistentzia-jarduerari, ezarritako programa espezifikoari, laguntza-baliabideei eta EAEko espetxeetan dauden zerbitzu-zorroari buruzko informazioa emateko.

5.- Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio zehaztu ditzala "Diana kolektiboak" artatzeko laguntza-ibilbide soziosanitarioak, funtsezko gizarte-, osasun- eta komunitate-eragileekin lankidetzan, erantzun integral eta koordinatua emateko kolektibo horietako bakoitzaren beharrei (degaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonak, nahasmendu mentala duten pertsonak edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak, besteak beste).

garantizando una asistencia y una atención de calidad, al igual que al resto de la ciudadanía de la CAV.

4.-El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a realizar una memoria anual en la que se informe sobre la actividad asistencial prestada, los programas específicos implantados, los recursos asistenciales y la cartera de servicios existentes en los centros penitenciarios de la CAV.

5.-El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a definir rutas asistenciales sociosanitarias para la atención de los diferentes "Colectivos Diana" en colaboración con las y los agentes sociales, sanitarios y comunitarios clave de modo que se proporcione una respuesta integral y coordinada a las necesidades de cada uno de esos colectivos (personas con discapacidad o dependencia, personas con trastorno mental o personas en riesgo de exclusión social, entre otros).

EA-NV

ES-SV

